

ZM

ZORROTZ MORROTZ • Zorrotzako herri aldizkaria • 81.alea, 2023ko maiatza

MARIAN LÓPEZ

Silver tabernako zerbitzaria

Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!



www.comerciantes-zorrotza.com

SARA ARÉVALO (BALLET NACIONAL)
MARTA OTAZU (JOAQUÍN CORTÉS)
BALLETS OLAETA
ANA SAGASTIZABAL
MIKEL DEL VALLE (MDVDANZA)
NEREA GONZÁLEZ
MIKEL SÁNCHEZ
IÑAKI LÓPEZ
MARÍA SOLINIS
URTZI LEGINETXE
OIHANE FERNÁNDEZ
ASIER URKIZA
NAHIA GARCÍA
DANTZERTI
ESTUDIO DANZA LIBRE
BALLET CLÁSICO TERESA GONZÁLEZ
DANZA MARÍA FERNANDA
ESCUELA DE DANZA SARA ECHEVARRI

V. MEMORIAL Alazne

GOGORATUZ

27 DE MAYO / MAIATZAK 27 19:00H

PISTA DE HOCKEY ZORROTZA

Precio/Prezioa: 3€

Sarrerak / Entradas en Calzados Omega y Regalos Omega

Ballet Clásico

Euskal Dantza

Bertsolaria

Danza Contemporánea

Break Dance

Danza Española

Flamenco

Música Clásica

Lírica



Adinekoentzat hainbat ekimen biltzen dituen "Zorrotza lagunkoia" programa pilotua martxan

sarrera



Zorrotzako herri aldizkaria
81. alea. 2023ko maiatza

f @ZorrotzMorrotz
t @zorrotzmorrotz
e zmorrotz@gmail.com

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratze Pérez
Zuriñe Vila

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:

Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Iñigo Ramirez de la Piscina

B Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jasotzen ditu.
Bilbao EDUKIAREN ERANTZULE BAKARRAK ZM berra eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira

Maiatzaren 28ari begira (udal eta foru hauteskundeen data) Auzo Elkar-teak alderdi politikoekin harremanak izan ditu, beste behin ere, gure kezka adierazi eta gure auzoan guztion bizi-kalitatea hobetzeko konponbide lehentasuna izatekotan. Espero dugu gure aldarrikapenak aintzat hartu eta hurrengo legealdian egia bihurtzea.

Era berean, jakinarazi nahi dizuegu duela hilabete batzuk, Udalarekin batera, auzoan jarri zela martxan "Zorrotza Lagunkoi", adineko pertsonekin berma-tutako ekimen pilotua. Momentuz, zenbait kon-taktu eta jarduera garatu

dira: auzoko azken jaietako jolas-jarduerak, eten digi-tala konpontzeko laguntza, eta, une honetan, ibilbi-de-programa bat, ibilaldi osasungarriak diseinatuta eta abian jarrita.

Beraz, adineko pertsona guztiak egon zaitezte adi garrantzitsutzat jotzen ditugun ekimen horiei. Datak, sare sozialetan, liburuxkan, nahiz kaleko karteletan argitaratuko dira. Ahotik-ahorakoa ere oso garrantzitsua da, jakina.

Animo eta beti bezala...
Zorrotza aurrera!!



IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mail bat zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarriz

**MESÓN
LUNA**

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

**ESKAITZA
PROGRESIBOETAN
ARMAZOIA +
KRISTALAK** GOI-GAMAKOAK
265€

Sustapena indarrean + 4.00 esferako eta -2.00 zilindroko arteko graduazioetarako
RPS: 213/18

ibarretaluxury
OPTICA

Punta Zorrotzako etorkizuna proiektatzeko ideia lehiaketa bat lizitatu du Udalak

Aurkeztutako proiektuek 2 mila etxebizitza eta Zorrotzaurre, Elorrieta eta Burtzeñara hiru zubi eraikitzeko baldintzak bete behar dituzte. Ikus-entzunezko hub bat ere aurreikusten da, filmaketa-platoekin eta prestakuntza-zentroekin.

AITOR MARÍN

Bilboko Udalak ideia lehiaketa bat lizitatu du Punta Zorrotzako berroneratzea diseinatzen. Hala ere, lehiaketara aurkeztutako diren arkitektura-estudioek Udalak ezarritako hainbat baldintza errespetatu beharko dituzte. Lehenengo baldintza itsasadarreko kaien eta Kadaguako erribereen berreskurapen paisajistikoa da. Bigarren premisa da 2mila etxebizitza berri eraikitzea; horietatik % 45ek nolabaiteko babesa izango dute. Azkenik, aurkeztutako diren proiektuek hiru zubi planteatu behar dituzte: batek Zorrotza lurmuturra eta Zorrotzaurre lotuko ditu, trafikorako eta tranbiarako prestatuta; beste bi oinezkoentzako pasabideak izango lirarteke Burtzeñara eta Elorrietara iristeko.

Planak Bilbo Santurtzirekin eta Muskizekin lotzen duten egungo C1 eta C2 Renferen trenbideak lurperatzea ere aurreikusten du, eta Asier Abaunza Obra eta Zerbitzuetakozinegotziaren hitzetan, eragiketa urbanistiko honek sortuko dituen onuren kontura ordainduko da.

Epeak eta prezioa

Udalak ez du aurreikuspenik egin plan hau noiz egongo den eginda aurreikusteko. Lehiaketan interesa duten enpresek uda baino lehen proposamenak aurkeztu beharko dituztela eta esleipena irailean egitea aurreikusten dela besterik ez da iragarri. Une horretatik aurrera planak idatziko dira, eta

hirigintza-dokumentuaren behin-behineko onarpenera 2024. urtearen amaieran iritsiko da Udalaren arabera. Prezioari dagokionez, udaleko arduradunek lehiaketaren emaitzari itxaron behar zaiola adierazi dute, ondoren, azken zehaztapena egiteko.

Zinema platoa

Udalak jarduera ekonomikoa sortu nahi du inguru horretan zine-plato handi baten bidez. Punta Zorrotzarako proiektuak plato digital birtuala, ekoizpenerako guneak, prestakuntza-zentroak, bulegoak, biltegiak, kamerinoak eta jantokiak eskainiko ditu. Gainera, hiruzpatalu filmazio eremu ere aurreikusten dira, bakoitza 1000 eta 2500 metro koadrokoa.

“Elektoralista”

Auzo-elkarteak ez du oraindik balorazio ofizialik egin, baina, ZMren galderei erantzunez, planari “elektoralista” deritzote iragarritako datagatik, eta era berean, kritikatu dute Punta Zorrotzako etorkizuna hasieran herritarren parte-hartzea izango zuen plan berezi baten bidez erabakiko zela iragarri bazuen ere, orain etorkizun hau HAPoren aldaketa soil batera mugatu duela Udalak.

Bestalde, EH Bilduk ere plana baloratu du eta “hiriaren tertziarizazioan” eragiten duela uste du alderdi suberbanistak. Horren ordez, EH Bilduk proposatu du eremu hau “industria aurreratuan, teknologikoan, jasangarrian eta sozialean oinarritutako gunea izatea”.



EAJ eta PSEk ukatu dute Euskal Erroten eraikina erosteko proposamena

EH Bilduk Batzar Nagusietako batzordean egindako proposamena baztertu zuten, eta jabetzak jardun arte itzarotearen alde egin zuten gobernuko taldeek

AINARA GARCÍA

Bizkaiko Batzar Nagusiek, Kultura eta Euskal kirolen batzordean, EH Bilduk Euskal Errota Handien eraikinaren egoera negargariagatik eraikina erosi edo desjabetzeko aurkeztutako proposamenari uko egin diote. Ekimen honek Elkarrekin Bizkaiaren babesa zuen, baina EAJ eta PSEren kontrako botoek atzera bota dute.

Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak osaturiko lan mahai batek eraikina erosteko aukera azter zezala eskatu zuen indar suberbanistak, errehabilitazio prozesua bizkortzeko asmoz. Izan ere, Zigor Isuskiza EH Bilduko batzarkideak esan bezala, “bi urte igaro dira dagoeneko jabetzari proiektu bat aurkezte eskatu zitzaionetik”. Planteamendu honek Euskal Ondare Kulturalaren maiatzaren 9ko 6/2019 legean oinarritzen du bere eskaera. Lege honek aukera ematen du eraikin babes-ituak desjabetzeko, haien kontserbazioa bermatzeko, zaharberritzeko eta balioa emateko, haien balio historiko-monumentalaren eta arkitektonikoaren araberako erabilerarekin. Gogoratu behar da 2009an Eusko Jaurlaritzak Euskal Errotak eraikina Kultura Ondasun gisa katalogatu zuela, monumentu mailarekin.

Oposizioko beste alderdi guztiek eraikina zuzkaitzearen beharra ere aipatu zuten, eta Aldundiari bere jokabidea aurrepigaratu zioten, premiazkoa izanik errehabilitazio epèak hainbestetan luzatzeagatik. Abstentziora jo zuten PPko batzarkidearen hitzetan “egoera

okertzen da etengabe”. Elkarrekin Bizkaiak aldiz, Aldundiari jarrera epela leporatu zion eta Zorrotzarron irizpidea eta ondare industrialeko adituen iritziak kontuan hartzeko eskatu zuen.

Jabetzak proiektu bat aurkeztu du

EAJ eta PSE, beste alderdiekin, mamian (eraikin paregabea izanik, bere balio historiko, arkitektoniko eta kulturalengatik Administrazioaren babesaren baharra duela) ados agertu baziren ere, eskaera ukatu zuten. PSEko bozeramaileak administrazio-prozesuak errespetatzeko eskatu zuen, jabetzak eraikinean eragiteko proiektu bat duelako. Ildo beretik jo zuten EAJk, lege-prozesua jarraitzeko eskatuz, jabetzak proiektu bat aurkeztu duelako, «Aldundiaren Ondare Zerbitzuaren bermea jaso duena». Hala ere, bi taldeetako batek ere ez zuten proiektu horri buruzko xehetasunik eman batzordean.

Azkenik, EH Bilduk, gaia eztabaidara eraman zuten taldeak, ez zuten EAJren eta PSEren zuzenketa onartu. Zuzenketa horrek Foru Gobernuari eskatzen dio proiektua administrazio publikoaren koordinazio-batzordean aurkezteko, erakunde eskudunek “aztertu eta ibilbide-orri bat ezarri ahal izan dezaten”, Euskal Erroten eraikinaren kontserbazioa, zaharberritzea eta balioa ematea bermatzeko, balio historiko, monumental eta arkitektonikoarekin eta legeko babes-mailarekin bat datorren erabilerarekin.

“Ibilaldi osasungarriak” proiektua aurkeztu dute adinekoen osasuna eta haien arteko giza harremanak sustatzeko

CARLOS RODRÍGUEZ

60 urtetik gorako auzoko boluntario talde bat osatu da Zorrotza adinekoentzako auzo atsegina izan dadin laguntzeko. Udalak sustatutako Bilbo Hiri Lagunkoia Nagusiek III. Planarekin batera lan egiten dute boluntarioek, auzoko hainbat elkarte eta baliabiderekin lankidetzan.

Iazko jaietan eman zioten hasiera bere jardura publikoari, bereziki adinekoen zuzendutako jai- eta aisialdi-jarduerak txertatuz jaietako programan. Aurtengo udaberrian, belaualdien arteko esperientzia bat jarri dute abian. Zehazki, institutuko ikasle talde bat Erretiratuen Zentrora hurbiltzen da ostiralero eta nagusien eskura jartzen da ordu batez, telefono mugikorrek dituzten zalantzak argitzeko. Ildo beretik, uda hasi baino lehen, jardura berri bat jarri nahi dute martxan, “Ibilaldi osasungarriak” deitu dutena, hain zuzen, adinekoen osasuna, ariketa eta harreman sozialak sustatzeko asmoz.

Jardura praktikara eramanez aurretik, auzoko hainbat elkarte eta giza baliabiderekin bildu dira. Hasiera batean Osasun Zentroarekin,



Auzo Elkartarekin, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin, Erretiratuen Elkartarekin, Zorrozgoiti Egoitzarekin, Fray Juan ikastetxearekin eta Zorrotzako Mendizaleekin; baita Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumo sailekin ere. Proposatuko dituzten ibilbideek 60/70 minutu inguru iraungo dute, errazak eta politak izango dira eta parte-hartzaileen arabera egokitu daitezke.

Parte hartu nahi duenak ez du aurretik izena eman behar. Nahikoa izango du astelehenero, 11:00ak baino lehen, Azoka Parkeko pilotalekuan egotea.

Udalak argitu du Saderrek ez duela baimenik portuan produktuak uzteko edo kamioiak aparkatzeko

ZORROTZ MORROTZ

Hala argitu du Obra eta Zerbitzuetako zinegotziak Auzo Elkartek martxoan erregulatutako galdera batzuei erantzunez. Udalaren esanetan, behin jakin zenean Saderrek materialak utzi zituela portuan (udal-lursailean), horiek kendu egin ziren. Era berean, Udalak Agaleusi ohartarazi dio ezin duela Ontziolako kaia kamioien aparkaleku gisa erabili, eta baimendutako espazioa bakkarrrik erabili ahal izango duela enpresak.


Bilboko Udaleko laguntza digitalerako gunea berriro martxan Udaltegian

ZORROTZ MORROTZ

Apirilaren 17tik berriro da martxan Bilboko Udaleko Laguntza Digitalerako Guneen zerbitzua, arretarako, orientaziorako eta formaziorako.

Auzo etxean dagoen Laguntza Digitalerako Gunea, izapideak eta kudeaketak online egiteko laguntza behar duten pertsonen lagun egiteko eta gidatzeko, eta teknologiaren alorreko gai eta gaitasunetan prestakuntza emateko zerbitzua da.

Eusko Jaurlaritzak ez du metroaren 4. linea eraikitzen hasi nahi AHTren Abandoko geltokiaren lanak hasita ez badaude



Metro Bilbako 4. linearen proiektua. Argazkia: www.euskadi.eus

ZORROTZ MORROTZ

Eusko Jaurlaritzak ez du aurrera egin nahi metroaren 4. linea eraikitzeko (Zorrotzatik igarota FEVEren egungo linearen trazadura aprobetxatuko lukeena), harik eta Abiadura Handiko Trenaren (AHT) etorkizuneko geltokia Abandon egiteko lanak hasi arte.

Hala azaldu du Iñaki Arriola Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak, Unai Fernandez de Betoño EH Bilduko legebiltzarkideak Legebiltzarrean idatziz egindako galderari erantzunez. Legebiltzarkide subiranistak Eusko Jaurlaritzako Garraio arduradunari galdetu zion ea orain idazten ari diren 4. lineako zati hori egiteko proiektuak Irala eta Basurto eremuaren arteko trazadura partzialki soilik martxan jartzeko aukera jasotzen duen, Abandoko geltokian obrak amaitu arte itxaron beharrik gabe.


Idatziz emandako erantzunean, Arriola sailburuak adierazi du aukera hori “teknikoki posible dela”, baina, hala ere, “zerbitzuaren kalitate-maila, linearen diseinua, maiztasuna

eta bidaia-denborak nekez onartuko lituzketela auzo horietako herritarrek”. Horrela, ondorioztatzen da Garraio Sailaren asmoa dela eraikuntza-proiektuari behin bakarrik ekitea, Abandoko AHTren geltoki berria martxan jarri arte itxaron beharra suposatzen duen arren, bertan amaituko baita 4. linea.

EH Bilduk, halaber, galdetu zuen ea 4. lineako lanak AHTren geltoki berria martxan egotearen baldintzapean dauden. Eta Arriolaren erantzuna baiezkoa izan zen: “Lanen bukaera Abandoko geltokiko obrak egitearekin lotuta dago”. Geltoki berri hori eraikitzeko proiektua duela gutxi lizitatu da.

Hasteko datarik ez

Obrak noiz hasiko diren ere galdetu zion EH Bilduk Parlamentuan. Garraioetako sailburuaren erantzuna da oraindik ezin dela obretarako eperik eman, “erabaki asko daudelako hartzeke, eta obrak hasi aurretik, ingurumen-izapideak amaitu behar direlako, eta era berean, eraginaren adierazpena lortu behar delako eta finantzaketa-hitzarmena onartu behar delako”.



// “Arizonako doktoretza amaitu ondoren, Zorrotzan bizitzen saiatu nintzen, baina ezin izan nuen” //

ESTIBALIZ GASTESI

Bizitokia: Florida. (AEB)

Noiztik: 1999tik.

Adina: 52 urte.

Lanbidea: Piano irakaslea.

Estibaliz orain dela 24 urte joan zen Floridara. Urtero auzora bueltatzen da, familia eta lagunak ikustera. Zorrotzan etxebizitza bat izatea gustatuko litzaioke, AEBetan duen bezala

TESTUA: NAROA PEÑA

Nolatan heldu zinen hara bizitzera?

Bilboko Kontserbatorioan erdi mailako ikasketak amaitu ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiaren beka jaso nuen, eta horri esker, Bartzelonan pianoko goi mailako ikasketak egiteko aukera izan nuen El Liceo Kontserbatorioan. Pianoko Goi Mailako Titulua Bartzelonan lortu nuenean, Estatu Batuetara joan ahal izan nintzen, graduondoko ikasketak bukatzera. 1994an doktoretza bat hasi nuen Arizonako Unibertsitatean. Nire tesia Euskal Herriko teklatuari eta bere musikari buruzkoa izan zen (“Musica Vasca del siglo XVIII” da izenburua) Idahoko euskaldunei buruzko etnomusikologian egindako ikerketa batekin batera. Arizonako doktoretza amaitu ondoren, Zorrotzan bizitzen saiatu nintzen, baina zorritzarrez, ezin izan nuen eta AEBra itzultzea erabaki nuen.

Nolakoa da zure lana?

Piano-jotzailea naiz, pianoa ikasten atera nintzen Bilbotik, eta orain gauza bera egiten jarraitzen dut. Zorrotzatik atera nintzenean, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin bakar-lari izateko ohorea izan nuen. Gaur egun, gehienbat piano-kontzertuak ematen ditut lau eskutara, edo bi pianotan (piano-jotzaile batekin ezkondu nintzen), eta Piano Duo Gastesi-Bezerra piano-bikoteko kidea naiz. Gure piano-bikote postmodernoaren CDak kritika bikainak jaso ditu Serbia, Frantzia, España, AEB eta Brasilen prentsaren aldetik. Hispanic Festival jaialdiaren zuzendari/antolatzaileak gara, arrakasta handia duena eta dagoeneko Valentziako telebistan eta AEBetako telebista publikoan aurkeztuta izan dena. Hurrengo edizioan euskal musikagileen lanak aurkeztuko ditugu. Beti saiatzen gara euskal kulturarekin konektatuta jarraitzen.

Nire egunerokotasunean, piano klaseak ematen ditut Arte Eskolan. Gainera, Piano Departamentuko zuzendaria naiz.

Hemen daukazue gure webgunea: <http://www.duogastesibezerra.com/>

Bizimodu berrira moldatzea kostatu zitzaizun?

AEB eta Zorrotza oso desberdinak dira. Etxean (Zorrotzan) dena gertu dago: trenak, autobusak, dendak, lagunak eta abar... AEBetan, berriz, dena kontrakoa da. Gehien sumatzen dena faltan auzotik irtetea da, eta beti bata edo bestea kalean ikustea. Floridan lagunak ditugu, noski, baina egia esanez, auzoa bisitatzen dudanean oso pozik sentitzen naiz.

Hizkuntza azkar ikasi zenuen?

Bai, jakina. Heldu nintzenezan ingelesez hitz eginen banekien. Ingelesa ikasi nuen nire bizitza osoan, baina hona helduz, azentua zail samarra izan zen. Gaur egun hitz egin eta zailtasunik gabe idazten dut.

Oso ezberdina da hango bizimodua Zorrotzakoarekiko?

Bai. Adibidez, Zorrotzan jendeak elkar eza gutzen du... Hemen bakoitza bere etxean babesten da eta zaila da batzuetan jendea ezagutzea.

Auzora askotan bueltatzen zara?

Urtean behin gutxienez. Normalean udako hilabeteak aprobetxatzen ditut, eta asko gustatzen zait denboraldi bat aita-ama eta familiarekin igarotzea. Lagunekin geratzeko ere aprobetxatzen dut. Euskalduna antzokiak, kontzertu oso onak ditu. Itzultzen naizenean



“Pianoa ikasteko atera nintzen Bilbotik; orain piano irakaslea naiz eta jotzen jarraitzen dut

beti joaten naiz kontzertuak edo operak ikustera. Zorrotzatik oso gertu izatea asko gustatzen zait.

Zeren falta sumatzen duzu gehien?

Familia eta lagunak batez ere. Eta pintxoren bat jatea ere noizean behin (kar, kar)

Eta bukatzeko... Zorrotzara berriro bueltatzeko asmoa duzu?

Jakina! Itzultzea beti dago gure planetan. Baina, atzerritar batekin ezkondu eta AEBn bi alaba izanda, zaila da bizileku finko bat izatea. Gustatuko litzaziguke Zorrotzan etxebizitza bat izatea eta beste bat AEBn.



BAR VENECIA

Especialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC

Vía gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenya

Lápices

LIBRURVENTA

Untziola kalea, 8
ZORROTZA

Euskaraz praktikatzeko aitzakiarik ez

BERBALAGUN EGITASMOA



PRAKTIKATU zerbitzuan mende hasieratik daramate mintzapraktika egitasmoak antolatzen: Mintzalagun zein Berbalagun programak. Horrez gain, ekintza osagarriak eskaintzen dituzte, hala nola asteburuko egonaldiak, udako ibiltariak edota zaletasunen (natura, kirola eta kultura) araberako interes-taldeak (praktikatu.eus atarian duzue programa osoaren berri). Oro har, euskaraz egin ahal izateko konplize sarea jostea da asmoa, baina zentimo bakar bat ere ordaindu gabe.

TESTUA: IÑIGO RAMÍREZ DE LA PISCINA | **ARGAZKIA:** BERBALAGUN

Funtsean, eta batez ere, euskarazko harreman-sare berriak sortzen dituzte Berbalagun egitasmoek, eta Zorrotzan ere Berbalagun kuadrilla jator-jatorra osatu dute. Duela 20 bat urte hasitakoak zein aurten bertan erregistratuak, denetariko profilak dituzte auzoko taldeetan. Adin eta sentsibilitate guztietako lagunak bildu dira, baina kontu zehatz bi dituzte komunean: Zorrotzan bizi dira eta euskaraz egin nahi dute.

Egun, 6-5 laguneko 4 talde daude aktibo Zorrotzan, astean behin ordu eta erdi inguruko saioa egiten dutenak: gehienak kafea hartzeko aitzakian elkartzan dira, baina badira paseoan ala pintxo-poteoan aritzea ere aukeratzen dutenak. Garrantzitsua da kopuru horretako taldeak izatea, gutxieneko dinamika aktiboa ziurtatzeko, baina, aldi berean, talde txiki batek eskaintzen duen konfiantzaz gozatu eta lasai hitz egiteko (hitz egitea baita helburua!). Partaide gehiago animatu ahala, beraz, talde berriak sortzen saiatzen dira.

Hiru hilean behin, auzoko talde guztiak elkartzeko poteoak antolatzen dituzte. Taldeetan, gainera, bi motatako figurak izaten dira (ahal dela, behintzat): Berbalagunak eta Bidelagunak. Aurrenekoak euskararen erabilera sendotu behar dutenak dira, eta azkenak euskaraz ondo dakiten pertsonak dira, gainerakoei nolabaiteko segurtasuna eskaintzen dietenak. Beharrezkoa da denek gutxieneko komunikazio gaitasuna izatea (bestela ezin lukete euskaraz egin), akatsak-akats eta erraztasun gutxi izan arren.

Egitasmoaren arduradunek argi utzi nahi dute Berbalagun egitasmoa ez direla euskara klaseak: erabilera trebatzeko eta erraztasuna hartzeko balio duten talde informalak dira, baita euskaraz egin ahal izateko konplize sarea josteko ere. Izan ere, askoren traba nagusia da inguruan (familiar, kuadrillan...) praktikatzeko aukerarik ez izatea.

Talde hauen historia, batik bat, egitasmoetan parte hartzen duten lagun guztien historia da. Batera ikasten baitute, gozatzen dute, eta elkarrekin profesionalki hazten direlako. Zerbitzu sortzailea eta diziplina anitzekoa da, etengabeko hobekuntzan murgilduta; eta, batez ere, euskaraz bizi daitekeela sinesten duen lantalde baikorra da.

Eta mintzapraktika taldeen osagarri, euskara kontsumorako abantaila batzuk ere badakartza Berbalagun izateak: hilero opari-kutxen zozketan sartuko zara, eta horretaz gain, ondoko deskontuak aplikatuko zaizkizu: AIZU! aldizkariaren urte osoko harpidetza merkeago izango duzu; BERRIA

Berbalagun egitasmoa ez dira euskara klaseak: erabilera trebatzeko eta erraztasuna hartzeko balio duten talde informalak dira

Egun, 6-5 laguneko 4 talde daude aktibo Zorrotzan, astean behin ordu eta erdi inguruko saioa egiten dutenak

egunkariak %50eko deskontua eskaintzen du asteburuetakoa harpidetzan; ARGIA astekaria, hilabetez (4 zenbaki) doan jasotzeko aukera eta harpidetza egin nahi izatekotan; urte osokoan %25eko deskontua; GAZTEZULO urte osoko harpidetza + CD bat 20 euroren truke; eta Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroetan %25eko deskontua.

Beraz, Zorrotzan, zure elkartean edota lantokian mintzapraktika programak abiatu nahi izatekotan, ala norbanako lez parte hartu (Berbalagun ala Bidelagun), galdetu AEK euskaltegian. Zentimo bakar bat ere ordaindu gabe: Berbalagun izatea guztiz doakoa da.



ehbildu

**Maite
duzun
Zorrotza**

**EGINGO
DUGU.**

MARIAN LÓPEZ:
Silver tabernako zerbitzaria

/// Auzoak zorte handia du estalitako galeria komertzial bat izanda

la berrogei urteren ondoren, agur esan dio Marianek Silver tabernari. Barraren barrutik bi belaunaldi hazten ikusi ditu eta horregatik bezero askok "ama" esaten diote. Erretiroa hartzeko bi egun geratzen zaizkiola, Omega galerietako pub mitiko horretan elkartu gara bere ibilbidearen erreposoa egiteko. **TESTUA: IGOR GUTIÉRREZ. ARGAZKIAK: AITOR MARÍN**



Noiz eta nola hasi zinen Silverren lan egiten?

Taberna nire ahizpak ireki zuen hasiera batean, baina arazo pertsonalengatik, handik bi urtera utzi eta alokairuan jarri zuen. Gero, beste bi urtez errentan egon zen eta gero, nire senarrak eta biok taberna eramatea proposatu genion. Javi (senarra) itsas-gizona zen eta bizimoduz aldatzeko gogoa zeukan. Horrela, 1985. urtean hasi ginen lanean, Javi arratsaldez eta ni gauetz, gaurdaino.

Zein taberna zegoen irekita garai horretan?

Gu hasi ginenerako, oraingo taberna guzti-guztiak: Slay, Coppy, Hodei (Menfis), Las Vegas (Rock Café) eta Rainbow (Jaleo). Oli taberna ere irekita zegoen baina oraingoaren erdia zen, ez zeukan aterik galeria barrura. Eta noski, Arzúa taberna ere bai. Baina galeria barruan ireki zuten lehen bi tabernak Slay eta Silver izan ziren.

“ Pena handia ematen dit taberna uzteak. Urte asko izan dira... baina bada garaia atsedena hartzeko

“ Abantaila handia da auzo batean egotea: egun batzuetan jende gutxiago dago, beste batzuetan gehiago, baina oro har mantendu gara.



“Nire bizitza Zorrotza da, ez dut nire burua beste inon ikusten

Giro itzela egongo zen, beraz...

Garai horretan galeriak topera egoten ziren, asteburuero. Ez nire taberna bakarrik, taberna guztiak baizik. Eta ez zen jende gaztea soilik ibiltzen, baita helduak, bikoteak ere... Bilboko gaueko beste taberna batzuetako jabeak ere noizbehinka etortzen ziren, La Otxoa esaterako.

Eta jaietan gehiago, ezta?

Zorrotzako jaietan, zer esanik ez! Galerietako eskailerak jaisten hasi orduko jendetza ikusten zen, ematen zuen ez zegoela lekurik denentzat. Eta Gabonzaharretan, Inauterietan... Horiek urteko momenturik gorenak izaten ziren.

Noiz hasi zen giro hori apaltzen?

Asko izorratzen nau hau esateak baina, nire ustez, gazte hura hil zutenetik (2007ko martxoan) dena aldatu zen. Jende askok etortzeari utzi zion, batez ere adin batetik aurrera. Pandemia ere kolpe latza izan da, noski, baina aurrekoak eragin handiagoa izan zuelakoan nago.

Udaltzainen jazarpena ere areagotu egin da...

Lehen eskuzabalagoak ziren itxiera-ordutegien kontrolean. Baina auzokideek gero eta

gehiagotan deitzen zieten, zaratagatik kezu. Alde batetik ulergarria da, agian neurritz kanpo atera gara zenbaitetan baina auzoko jaietan, Gabonetan eta halako momentu puntualetan hain zorrotzak izatea ere...

Aldatu dira auzoan gauez ateratzeko ohiturak?

Zeharo! Pandemiagatik asko aldatu da gaueko giroa, giro gutxiago dago oro har. Ez soilik Zorrotzan, Bilbon ere bai. Kontsumo ohituretan ere aldaketak somatzen dira: taberna honetan, behintzat, kubata asko edaten zen, orain ez hainbeste. Hala eta guztiz ere, abantaila bat da auzo batean egotea: egun batzuetan jende gutxiago dago, beste batzuetan gehiago, baina oro har mantentzen gara.

Aldatu ez dena tabernako dekorazioa da...

Tabernaren betiko itxura mantendu izan dugu, horrela gustuko genuelako: sofak, moketa, barra atzeko posterra, koadroak... Baina, aldaketak egin egin ditugu. Esaterako, moketa berriztatu, sofaren kolorea aldatu, poster berriak jarri... Horrelakoa izan da Silver taberna eta aurrerantzean ere horrela izaten jarraitzea gustuko nuke.

Erretiroa hartzeko gogo duzu?

Pena handia ematen dit agur esateak, urte asko izan dira. Pentsa, berrogei urte hauetan familia bereko hainbat belaunaldi ezagutu ditut! Jende asko estimatzen dut eta nik ere beraien maitasuna sumatzen dut. Bezero askok “ama” esaten didate-eta! Baina beste-

// **Galeriak ezin dira gelditu.** **Ez abandonatu galeriak!** //

Zelan doa Silverren erreleboa?

Ahizpak taberna salmentan jarri du eta pertsona bat erostekotan egon da baina bankuak ez omen dio mailegua onartu. Beraz, momentuz, taberna itxita egongo da apirilaren 29az geroztik. Garai zailak dira baina espero dut laster erosle berri bat agertzea.

Nola ikusten duzu galerietako etorkizuna?

Nire iritziz, galeriek potentzial handia daukate, batzuek kontrakoa uste badute ere. Zorrotzan zorte handia dugu estalitako taberna-gune propioa izateagatik, gaez ateratzeko aukera eta guzti. Auzo guztiak ezin dute gauza bera esan. Pertsonalki gustatuko litzaidake galeriak berriz loratzen ikustea. Galeriak ezin dira gelditu!

Amaitzeko, zer esango zenioke Zorrotzako jendeari?

Ez abandonatzeko galeriak. Taberna hauetan jende ona dabil, benetan. Hemen familia baten modukoak gara, elkar babesten dugu. Bakarrik datorrena ere ez da bakarrik sentitzen.

Anekdotarik aipatzeko?

Hainbeste gauza gertatu dira non ahaztu egin ditudan gehienak. Gogoan dut Gabonzahar batean taberna irekitzera joan ginenerako dena jendez lepo zegoela. Kotiloi-poltsak segituan agortu ziren eta jendeak tabernako dekorazioa kentzen hasi zen soinean jartzeko!



tik, oso nekatuta nago jada eta bada garaia atsedena hartzeko. Batzuek txantxetan jarraitzeko eskatzen didate, lagunduko didatela, makilaz ibili behar banaiz ere... Baina denak du bere muga, naturala denez.

Nola ikusten duzu zure burua jubilatutik ondoren?

Gustuko nuke taberna honetara etortzea kafea hartzera, tabernari berriari gomen-

dioak eman... Eta auzotik ibili, erosketak egin, lagunekin geratu... Nire bizitza Zorrotza da, sei urterekin etorri nintzen hona bizitzera eta ez dut nire burua beste inon ikusten. Jende asko eta asko ezagutzen dut auzoan, asko maite ditudan eta asko maite nauten auzokideak, hainbeste urte eman ditut barra honen atzean! Nojan etxe bat daukagu eta noizbehinka joango gara, baina hemen bizitzen jarraituko dugu.

El 10 de Fray Juan

Pintxo askotarikoak, hanburgesak eta sandwichak
Bakzarriak eta aforriak (erreserbatu behar da)
Arolo onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

ZORROTZA F.C.
kiolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

Jai-Alai
kafetegia

Abaro estrate, 12
94 490 12 59



AGENDA

Maiatzak 18, osteguna

19:00 Auzo Etxean.

Antzerkia:

ZENBATU TEATRO COMUNITARIO:

“Quien manda aquí”.



Maiatzak 18, osteguna

19:30 Azoka parkean.

MUSIKAUZO 2023.

Kontzertua:

MARIO CLAVELL QUARTET

Maiatzak 20, osteguna

20:00 Gaztetxean.

Kontzertua: **O FUNKILLO.**

Sarrerak: 12 / 15 €.

Maiatzak 25, osteguna

19:00 Auzo Etxean.

Musika ikuskizuna:

MARIA SOLINIS pianoan,

OIHANE FERNANDEZ biolan,

eta SAIOA BAÑALES ahotsen:

“Emakumeen Taupadak munduan zehar”

Maiatzak 27, larunbata

19:00 Kirodegiko hockey pistan.

ALAZNE GOGORATUZ

V. MEMORIALA

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (uztaila-abuztua-iraila) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatzitako ekainaren 15a baino lehen.



Printzak begietan

Iratxe Ormatza Imatz

Elkar. 2023. 196 orrialde.




Handiak izan dira aldaketak XX. mendean: jendea lan bila etortzea, zinema eta bestelako asmakizunak, iraultza asmoak, gerra ankerra eta gerraoste luzea, txabolak, askatasun-ametsak berriro itzartzea... Bien bitartean gauza batzuk ez dira horrenbeste aldatu: pobreen zapalkuntza, euskararen gutxiespena, emakumeen azpiratzea

Horri guztiari aurre egiteko, indartsuak izan dira libertate-egarrira, langileen elkartasuna, andreen ahizpatasuna. XX. mendeko hamarkada bakoitzari istorio bat sortu dio Iratxe Ormatzak, eta ipuin bakoitzean emakume baten bizipenak kontatu. Hamar emakume Bilboko kaleetan zehar, giro sozial, politikoa eta kulturalak zeharkatzen dituela, minez eta pozez.



MAMU “Mapa eta lurraldea”


(Autoekoizpena) 2023



Aldizkariaren txoko honetan Haxotz taldeari buruz askotan hitz egin dugu. Due-la urtebete inguru proiektua “hibernazio” egoeran sartu, eta bertako kide batzuek Mamu proiektu berria sortu eta 7 abestiz osatutako lana kaleratu berri dute “Mapa eta lurraldea” izenburupean. Estilo aldetik hardcorea dute oinarri, baina melodiei muzin egin gabe. Grabaketa eta gainerakoak Enkore taldeko partaide izandako Urtzi Izaren gidaritzapean Bilboko Errekaldeberri auzoan honek duen Eten Espazio Sonoro estudioan burutu dituzte. Soinu organiko eta artifiziorik gabekoa, lokalean egongo balira bezala, zuzeneko emanaldi baten atmosfera sortuz.

Diseinuaren esparruan Haxotz taldeko kitarjolea izandako Iñaki del Olmoren laguntza izan dute. Esan ohi da guztia familia giroa gelditzen dela eta kasu honetan horrela da, berak egindako argazki batzuetaz baliatuz azala eta barruko artwork-a landu baitituzte.

Eskarmentu handiko musikariak direnez gero, zuzeneko emanaldiak eskaintzen hasiak dira jada. Proposamen interesgarria laukote honek aurkezten diguna, hemengo eszenari aire freskoa dakarkiona.



Olagarro brotxeta

Zailtasun maila:

Erraza.

Prezioa: 2,50 euro.

Osagaiak: Olagarroa, olio, gatza, piperrauts eta ogia.

Lehenik eta behin, olagarroa egosi eta zatitu behar dugu. Geroxeago, bizpahiru zati, egurrezko ziri batean sartu. Plateran aurkezteko, olio, gatza eta piperrautsa bota gainetik, eta ogi puxka batekin disfrutatu dezakegu!

TXINBO TABERNA

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera:

07:00etatik 23:00etara

Larunbatetan: 08:00etatik

24:00etara

Igandeetan: 08:30etik

23:00etara

Abaro estrata, 10



cafe txinbo

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak

Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74



FARMAKOTEGIA SUSANA URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza

Tlfno. 94 441 61 46

ROCKET TAVERN



Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAJ JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98



Arraitz

MANU COBO

Arraiz mendia hiru gailurrek osatzen dabe. Horien artean garaiena I kota da (361 m). Goi-tentsioko linea batek erdiguneko gailurretik (352 m) bereizten dau; iparraldeko kotan, berriz, Arraizeko gotorlekuaren edo gazteluaren hondakinen ondoan, Iturrigorri (345 m) izeneko erpin geodesikoa dau. Iturrigorri Bilboko auzoa da, eta ez dagokio gailur horietako baten izenari. Gailur horrek Zorrotzako Nerbioi eta Kadagua ibaiek bat egiten daben lekurantz adarketa bat proiektatzen dau, baie lehenago Kobeta menditik igo behar dogu.

XIX. mendearen amaieran, hirugarren eta azken karlistaldia egin zan; Bilbo huribilduagaz eta itsasadarraren inguruko herrie-kaz zerikusirik ez eban borroka. Itsasadarra inguratzen daben mendien goiko aldeetan, bi aldeetatik Abran itxasoratu arte, gotorlekuak eraiki edo berreraiki ziran. Begiratoriaren eskuinaldean, Arraitz mendiaren aztarnak dagoz. Karlisten bandoak eraiki eban 1875 urtean, tronera, haitzetan egingako foso bat eta Kastrexana aldera zubi altxagarri bat dabezala. Ametik beste kokaleku gotortu batzuk ikus zitezkeen, hala nola Kobetas-Altamiratik gertu zeudenak,

aginte liberalaren pean, eta Arnotegikoa, karlisten bandoak eraikia. Itsasadarraren beste aldean, Banderas eta San Bernabe mendietako gotorlekuak egozan.

Hona igotzeko, eta aurreko ataletan ikusitakoa hankak berotzeko ohiture artute, auzotik Kastrexana ganera igoko gara, zazpilendetatik. Gora egingo dogu errepidetik beheko aldean dagoen baso bidetik, sueps lantegiko aztarnak igaro eta gero, ezkerraldetik. Altamirara heldu eta Kobetasera igoko gara, udaltzaingoen txakurdegia igarota, apur bet aurrera eta antzinako arrobotik gora, markatutako bidetik. Arrobi zaharra gainditute, Arraitz mendi aurrez aurre topatuko dogu. Itzultzeko Arraitz herrira joangeinke, zeharkatu eta ateratzean eskumako bidea hartuko dogu jeisteko, zabalgarbi paretik jeitsiko gara eta. Motza eta kiratsatxua degoku itzulia, baie oso ona konturatzeko sartu eta sartzen jarraitzen doskuen kaka guztia geure alboan. Pista itzi baino lehen eskumean ikusiko dogu ur partzuergoko sifoiko dorretxoa, Orduntetik etortzen dan ubidearena. Pizka bat igo eta ubide gainetik auzora helduko gara, erreskailu albotik igarota bere.... Begiratu eta Aurrera jarraituz barrero topako dogu ubidea, Kastrexana ganera itzuliz.

TXOKO FEMINISTA



Lan-testuinguru guztietan bezala, nekazaritza-lanean jardunbide egokiak eta txarrak daude kontratazioari dagokionez. Pandemiaren zehar, nekazaritzako sasoikako langileak funtsezko langiletzat hartu ziren, baina gaur egun beren eskubideen aldeko borroka ahaztuta utzi da berriro. Gainera, nekazaritza-laneko testuinguruetan sasoikako lanetan aritzen diren emakume migratzaileek egoera zaurgarrienak pairatzen dituzte, lan-prekarizazioak eta langabeziak gehiago eragiten dielako: immigranteak izateagatik (batzuetan egoera administratibo irregularrean egonda), eta pairatutako genero-diskriminazioagatik.

Andaluzian eta Murtzian egin berri den azterlan baten arabera, emakume horiek, arestian aipatutakoaz gain, hainbat motatako sexu-indarkeria eta sexu-abusuak jasateko arriskuan daude: sexu-esplotazioa helburu duten sareek behartuta edo lana edo aterpea ematearen truke enplegu-emaileen sexu-erasoak pairatzen dituztelako. Horrez gain, prostituzioa biziraupen estrategia gisa hautatzeko posibilitate gehiago dituzte.

Ea egun batean kontsumitzaileok gure hozkailuak betetzen dituzten produktuak ekoizteko erabiltzen den eskulanaz gehiago interesatzen garen... eta horren arabera erabaki zentzudunagoak egiteko gai garen.

IRATZE PÉREZ

SALAKETA ARGAZKIA

Bide gorria? Ala txapuza hutsa?

Bilbo eta Barakaldo lotu dituen bidegorriak kritika ugari jaso ditu hainbat txirrindulari elkartereengandik, batez ere Barakaldoko partean errepidea zeharkatzen duen bidegurutze ugariengatik. Duela gutxi informatu genuen Barakaldoko zatia amaituta zegoen arren, Bilbon lizitazioa ez zela artean bete. Hala ere, denbora errekorrean obra esleitu da, eta tatxan: amaituta! Hori bai, bidea ez da gorria, zorua ez da ukitu eta errepide zuloak bere horretan... Eta irtenbidea ezer ukitu gabe lurtean lerro batzuk margotzea bazen, ezin zitekeen lehenago egin? Ala presa sartu al da hauteskundeak gertuegi zeudelako?



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefona: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefona: 94 442 17 12

LASTER

Elektrizitatea
elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net
MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013

STAZ

OKINDEGIAK

**Zorrotzako
labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfno. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

Kableari itsatsita

Ez naiz oso telesail zalea, egia esan. Tira, apur bat kontra ere banago. Bizi gaituen uhalde ikaragarriaren kontra, batez ere. Etenik gabeko kontsumoa jaun eta jabe den garaiotan, pilulen antzera funtzionatzen dute telesailek, gehienetan kontsumo erraza eta arina bermatzen dutenez. Ikus-entzunezkoen mundua irauli dute, bai, baina ez derrigorrez onerako. Zineman antzeman zitezkeen hainbat zantzu larriagotu dituzte. Gaur, ordea, telesail bati buruz hitz egitera natorkizue. Izan ere, gorago zalea ez naizela esan badut ere, gutxi batzuk ikusi izan ditut, gozatu ere bai. The Soprano's edo Mad men aipa nitzake, kasurako. Ikusitakoan artean, baina, The wire da, alde handiz, gehien katigatu nauena. Katigatu diot, ez erabili ohi den zentzuan, hots, kapituluak bata bestearen atzetik irenstekoan, serieak pipak bailiran. Gehien pentsarazi didana dela esan nahi dut, gustukoenetan irismen handiena duena.

Halako mitologia aire bat du telesailak, greziar tragedia moduko bat da. AEBetako Baltimore hirian kokatzen da istorioa -izatez, denboraldi bakoitza da desberdina, loturarik baduten arren-, Maryland estatuan,



ASIER URKIZA

“ **The Wire ez da ohiko telesail poliziako bat. CSI arrunt batek ez bezala, fokua bestelakoetara ere zabaltzen du: politika instituzionala, hezkuntza, auzo txiro eta beltzetako bizimodua. Poliziaren barruko ustelkeria ageri da garbiki eta gogoeta interesgarriak ongia eta gaizkiari buruz.**

handik hurbil Washington DC hiriburua eta Annapolis aberatsa daudela. Urtean hilketa gehien duen AEBetako hirietako bat da, droga trafiko ugariarekin. Telesailak poliziaren eta droga trafikatzailen arteko intentsitate baxuko gerra kontaktzen du. Baina, eta hemen dator bereizgarria, ez da ohiko telesail poliziako bat. CSI arrunt batek ez bezala, fokua bestelakoetara ere zabaltzen du: politika

instituzionala, hezkuntza, auzo txiro eta beltzetako bizimodua. Poliziaren barruko ustelkeria ageri da garbiki eta gogoeta interesgarriak ongia eta gaizkiari buruz. Alkategaiak eta trafitzailak eskutik helduta, lukurreriazko proiektu urbanistikoak, sindikatuen itotzea, klase desberdinkeria.... Hori dena eta gehiago modu errealistan kontatua, es-panturik gabe, efektismorik gabe, errealitate gordina bere arrunckerian erakutsiz, umore eta guzti.

West Baltimorreko kaleek badute poetikarik, izan ere. Proiektu etxebizitzetako gatzetxoak “Five-o!” oihuka. Hip-hop-a entzuten da blokeen leihoeetatik. Umeek eguneroko ogia legez bizi dituzte tiroketak. Yonkiak arrastaka doaz hurrengo txutearen bila. Auzoko bizirauleak, berdin ihes egiten diotenak poliziari eta izkina oro okupatzen duten trafikanteei. Poliziaren sarekadak gau eta egun. Goiko mailetara ezin iritsi direnez hasi berri diren ume mokoak jipoitzen dituzten langile klaseko agenteak. Eta alcoholez beteriko Jimmy McNultyren gauak. Politikari ahazuriak, estatistikari bakarrik begiratzten dioten polizia-buruak. Bartzuek dirua, besteek miseria. Bien-bitartean, biziraun beharra. Horixe da The Wire, kapitalismoa bere maila oinarrikoan, bartzuek hil, besteak bizi. Ez dago txarto telesail batentzat....



Alazne Gogoratuz V. Memoriala, dantza eta musikarekin ezinbesteko hitzordua

Maiatzaren 27an dantza eta musika-rekin ezinbesteko hitzordua dugu auzoan. Aurtengo edizioa, 5.a dena, Zorrotzako hainbat eragileren borondatezko lanari esker antolatu da. Izan ere, Memoriala ez litzateke posible izango Auzo Elkartearen eta Alazneren senide eta lagunaren ahaleginik gabe. Era berean, aipatu beharrekoa da Laguntasuna Elkartearen eta auzoko hainbat boluntarioren laguntza.

Ekitaldiaren atal artistikoa-ri dagokionez, nabarmendu nahi genuke bigarren urtez Mikel del Valle auzoko dantzaria izango dela arduraduna.

Azken orduko aldaketarik izan ezean, aurreratu dezakegu parte-hartzaile hauek igoko direla Zorrotzako kiroldegiko agertokira:

Asier Urkiza, bertsolaria;
Sara Echevarri Dantza Eskola;
Estudio Danza



CARLOS RODRÍGUEZ

“**Inguruko dantza-eskolentzako plataforma bikaina da Memoriala, eta dagoeneko ezagunak diren artistak miresteko erakusleihoa ere bada.**”

Libre; Dantzerti; María Fernanda Dantza Eskola; Teresa González, Ballet klasikoa; Marta Otazu; María Solinís, piano jolea; Ana Sagastizabal, soprano; Mikel Sánchez; Oihane Fernández; Nahia García; Olaeta Balleta; Iñaki López; MDV Danza; Sara Arévalo; Nerea González; eta Urtzi Leginetxe

Ezbairik gabe artista horiek guztiek une ahaztezinak pasazaziko dizkigute urteko

kultur hitzordu garrantzitsu honetan. Izan ere, Alazne Gogoratuz Memoriala Zorrotza inguruko dantza-eskolentzako plataforma bikaina izateaz gain, dagoeneko ezagunak diren artistak miresteko erakusleihoa ere bada.

Sarrerak 3 euroren truke lor daitezke Calzados Omega eta Regalos Omega dendetan.

Gainera, Memorialaren harira, “Laguntasuna” merkatariaren elkartearen eskutik, bi kultur ekitaldi eskainiko dira maiatzean zehar Auzo Etxean: hilaren 18an “¡Quién manda aquí!” antzerki-lana ikusi ahal izango da, Zenbatu Teatro Comunitario-ren eskutik; eta hilaren 25ean Maria Solinisek (pianoa), Oihane Fernandezek (biola), eta Saioa Bañalesek (ahotsa) “Emakumeen Taupadak munduan zehar” musika-ikuskizuna eskainiko digute.

B
BiziFitness

Zure zain gaituzi
Zalbidea estratako 13an.

CROSS TRAINING
ENTRENAMENDU FUNTZIONAL
TXIKICROSS

Deitu 625 106 531 telefonora

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidea estrata, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNESS

Tel. 94 441 62 75

Regalos Omega

oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza
94 482 03 66

www.omegadetalletes.com

RISKO
Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86



Cristina

Prezioak bikoiztu eta hirukoiztu dira, egoera jasanezina bihurtzen ari da benetan.



Rubén

Barazki eta fruituetan asko nabaritzen da, baina okela eta arrainetan batez ere. Arropan, ordea, ez dut hainbeste nabaritu.

 IRATZE PÉREZ

Prezioen igoera.

Asko nabaritu duzu?
Zein produktutan nabaritu duzu gehien?



Vero

Bai, asko igo dira. Familia askok nutrizio egokiari jarraitzeko funtsezkoak diren produktuak erosteko zailtasun gehiago izango dituztela uste dut.



Mikel

Ukraniako gudak eragindako egoeratik prezioak asko igo dira. Izan ere, guda aurretik geneukan erosteko ahalmena ez dugu berriz berreskuratuko.



Esti

Pila bat nabaritu dut, batez ere oinarrizkoak diren produktuetan.



**ZORROTZA
HERRIGINTZAN**



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 405 92 63
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



Praktikatu Euskaraz Gurekin!

Euskaraz praktikatu eta bizitzeko hamaika aukera ditugu zuretzat:
Mintzataldeak / Familia-ekintzak / Txangoak /
Mintzodromoak / Lehiaketak / Tailerrak /
Hitzaldiak / Mendi-irteerak / Asteburu-pasak...

EMAN IZENA HEMEN:

Zorrotza AEK

Zalbidea, 7 • 94 441 49 20
zorrotza@aekeus



iKasi
MiKasi!

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



Pinadia etaldea, 6. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75
📧 stietcampas@gmail.com



Ikastalde etaldea, 12. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21
📧 014159aa@hezkuntza.net



San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 428 01 36
📠 94 428 01 37
📧 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabibi.hezkuntza.net

Maite duzun Bilbo



🐦 @ehbildubilbo 📘 ehbildubilbo 📷 ehbildubilbo ✉ bilbo@ehbildu.eus

Konpromisoa, ilusioa eta esperientzia dira gure hautagaitzaren ezaugarriak. Ibilbide pertsonal desberdinetatik abiatuta, behar den eraldaketa aurrera eramateko talde prestatua da gurea.

Irakiten dagoen Bilbo nahi dugu, borroka sozialen erreferente eta pertsona guztien defentsan abangoardia. Hori lortzeko, lanerako prest eta gozoz aurkezten gara zerrenda osatzen dugunok.

Maite duzun Zorrotza!

ehbildu

🐦 @ehbilduzorrotza

📘 EHBilduZorrotza